




Gizarte Hezkuntza

1. MODULUAREN GIDA

TESTUINGURUAK HEZKUNTZAN



2010-20

AURKIBIDEA

AURKEZPENA	3
MODULULUAREN GAITASUNAK ETA IKASKETA EMAITZAK.....	3
1. MODULUAREN EGITURA.....	4
MODULUAREN DIZIPLINARTEKO JARDUERA (MDJ).....	5
ZER LANDUKO DUGU?	5
NOLA EGINGO DUGU LAN?	6
ZEINTZUK IZANGO DIRA IKASKETA PROZESU HONETAN EMANGO DITUGUN URRATSAK?	7
MDJREN EBALUAZIOA (PROZESUA, ADIERAZLEAK, IRIZPIDEAK ETA NOTA)	10
IRAKASGAIEEN ZERRENTA: Bakoitzaren konpetentzia espezifikoak eta edukiak	13

AURKEZPENA

Gizarte Hezkuntzako titulazioaren 1. moduluak, “Testuinguruak hezkuntzan” izenekoak, hezkuntzako profesionalek esku hartzen duten hezkuntzaren eta gizartearen testuingurua osatzen duten dimentsioak (gizartekoa, historiarena, hizkuntzarena, kulturarena eta giza garapenarena) ikasleei ulertarazi eta deskribatzea du helburu. Hezkuntzaren eta gizartearen errealitateak analitikoki “begiratzera erakutsi” nahi da, honako dimentsio edo maila hauetan:

1. Norbanakoarengana bideratutako mikro dimentsioa.
2. Norbanakoak parte hartzen duen bitarteko taldeetara bideratutako meso dimentsioa: bere inguruneko funtsezko testuingurua.
3. Egituren, erakundeen, azterketara bideratutako makro dimentsioa, hau da, gizarte eta heziketako jarduerak hartzen dituen esparrua.

Graduaren hasieran behaketa nola egin, nora begiratu behar den erakusten zaie ikasleei, heziketako testuinguruak eta berauetako praktikak aztertzeke asmoz. Hurrengo moduluetan joango da, poliki-poliki, behaketa hori fintzen.

Moduluko bost irakasgaien bitartez ikasleak zentzu honetan bideratzen dira: “Garapenaren Psikologia” irakasgaiarekin, Bizi Zikloaren baitako esparru afektiboan, emozionalean, sozialean eta kognitibo edo intelektualean izaten diren prozesu psikologikoetan gertatzen diren aldaketa eta jarraitutasunen ikasketan, deskribapenean eta azalpenetan murgiltzen ditu. Irakasgai honi esker heziketako testuinguru ezberdinetan pertsonaren garapeneko oinarritzko elementuak aztertzen dira eta balioa ematen zaie. “Hezkuntza, hizkuntza, kultura eta aniztasuna” irakasgaiarekin gure gizarteko aniztasunaren fenomenoak aztertzen da, eta hizkuntza, balore eta ohitura ezberdinen artean sortzen den talka eta konplexutasunari heziketaren bidez erantzun bat emateko bideak bilatzen dira, beti ere ikuspuntu integratzailetik, bazterketak ekidin eta benetako aukera eta eskubide berdintasunak bermatuz; “Hezkuntzaren Historia” irakasgaiak giza egoera gatazkatsuak aztertzen dira, heziketaren prozesu historikoak erreferentzia izanik, bereziki haurren eta alfabetatzearen esparruetan; “Hezkuntzaren Soziologia” irakasgaiak baliabide teorikoak eskaintzen ditu, gizarte hezitzaileek lantzen dituzten pertsonen heziketako eta gizarteko testuinguruei buruzko hausnarketa eragiteko asmoz, eta enfasia egiten da testuinguru horrek euren nortasuna eraikitzerakoan duen garrantzian; azkenik, “Estatistika Hezkuntzan” irakasgaiarekin moduluaren helburua lortzen laguntzeko, egoera edo fenomeno jakin baten ezaugarri diren datuen analisi kuantitatiboa egingo da.

MODULULUAREN GAITASUNAK ETA IKASKETA EMAITZAK

Guk ulertzen dugun moduan, gaitasunen barruan sartzen da “bizimodu profesional edota pertsonalean agertzen diren arazo edo egoera gatazkatsuak ebazteko behar diren egitura kognitiboak, intelektualak eta emozionalak mobilizatzen dituen ikasketa konplexua”. Ikasketetako emaitzen arabera antzeman daitezke eskuratutako gaitasunak.


Hauek dira modulu honetan eskuratuko diren gaitasunak eta ikasketaren emaitzak:

GAITASUNAK	IKASKETA EMAITZAK
1G1. Testuinguru ezberdinetan gizarteko eta hezkuntzako esku hartzearen funts teorikoak (psikologikoak, soziologikoak, linguistikoak,	• Gizarte eta hezkuntzako testuinguruen osagai historiko, soziologiko, psikologiko, linguistiko eta

kulturalak eta pedagogikoak) ezagutu eta ulertzea.	kultural ezberdinak identifikatzea. • Heziketak gure testuinguru historiko eta kulturean dituen ezaugarriak zehaztea, genero ikuspegia esplizituki agertuz.
1G2. Errealitatearen oinarritzko konplexutasuna interpretatzea (linguistikoa, sozial, kulturala eta generoarena), hainbat tresna eta prozeduren bitartez (estatistikoak, metodo historikoa, soziologikoa, etab.) eta oinarritzko programa informatikoak erabilita.	• Heziketako testuinguru jakin baten ezaugarri diren aldagai historiko, kultural, linguistiko, soziologiko eta psikologikoak zehaztea, eta beronen analisia eta tratamendua egiteko teknika estatistikoak erabiltzea. • Lanak egin eta aurkezterakoan IKTak erabiltzea
1G3. Hezkuntzarako ezagutza sortzeko beharrezkoa den informazioa aukeratu eta prozesatzea (testuinguruaren analisia eta gatazka egoerak).	• Heziketa lanak burutzen diren hezkuntza testuinguru anitzen ezaugarriak bereiztea.
1G4*. Ahozko komunikazioan deiak argi eta era ordenatuan aurkezten ditu.	• Ahozko eginkizunetan ideiak argi eta ordenatuan aurkezten ditu.
1G5*. Ezarrita dauden irizpideak erabilita, gizarte errealitateari buruzko analisia idatziz jasotzea, txostenak eginez.	• Idatzitako baieztapenak argumentu edo ebidentziekin justifikatzen ditu.
1G6. Ikasketako jarduera eta zereginen aurrean jarrera positiboa agertzea.	• Moduluko jarduerak eta zereginak planifikatzeko ezarrita dauden prozedurak errespetatzea.
1G7*. Lan taldeetan modu kooperatiboan, arduratsuan eta etikoan lan egitea, lanaren baitan sortzen diren zailtasunak antzeman eta konpontzeko.	• Era kooperatibo, erantzule eta errespetuz lan egiten du.

1. MODULUAREN EGITURA

Aipatu diren bost irakasgaiez gain, MDJk (Moduluaren Diziplinarteko Jarduerak) ere osatzen du modulua, azpiko grafikoan ikus daitekeenez:



MODULUAREN DIZIPLINARTEKO JARDUERA (MDJ)

Zer landuko dugu?

Lehenengo Moduluko MDJrekin gizarteko eta hezkuntzako zenbait errealitateren begizko azterketa egin nahi da, Modulua osatzen duten bost irakasgaien laguntzarekin, eta Moduluen aurkezpenean aipatu ditugun dimentsioak kontuan izanik. Zehazki esateko, honakoak hartuko ditu MDJk:

- Hezkuntza testuinguru baten azterketa, galdera honi erantzun ahal izateko: Zein neurritan ekarriko du hezkuntzaren arrakasta aztertutako testuinguruak?
- Lanaren emaitza, eta honen aurkezpena eta ahozko defentsa biltzen dituen txosten idatzia.
- “Hezkuntzaren arrakasta: hezkuntza testuinguru ezberdinei so eginez” jardunaldietan parte hartzea, txostena ikasle eta irakasleei ahoz aurkeztuz; modu horretan, ikasgelako kide guztiek aztertu dituzten hezkuntza testuinguruetatik ikasiko baitute ikasleek.
- Lantaldean jarraitu den lankidetzaren prozesuaren azterketa eta horri buruzko txostena egitea, lantaldeen funtzionamendua egokia izan dadin eta lanbidean behar bezala jarduteko gaitasunak eskuratzeko asmoz.

Horretarako, hezkuntzaren eta gizartearen testuinguru batzuk eskainiko zaizkie ikasleei, talde eta hezkuntza esparru ezberdinekin lotutakoak. Testuinguru horietako bakoitzaren barruan arazo espezifikoren bat planteatuko da, eta, testuinguruaren azterketa zabalago baten ondoren, behaketa zehaztuko da. Ikasleek beheko aukera hauetakoren baten artean aukeratu beharko dute:

ESKU-HARTZEAREN ESPARRUA: HAURTZAROA, NERABEZAROA ETA GAZTAROA

<i>Esku-hartzearen testuingurua</i>	<i>Berariazko gaiak</i>	<i>Hezkuntza esparrua</i>
Ikastetxea: Ikasketa Komunitateak	Ikasle etorkinak, kulturartekotasuna. Gizarteratzea	Hezkuntza formala eta ez formala
Gizarte eta Heziketan Esku Hartzeko Taldeak (GHETak)	Babesik gabe gelditzeko arriskuan edo babesik gabe dauden haurrak, nerabeak eta gazteak	Hezkuntza ez formala: Erakundeen esparrua
Familia Funtzionalak	Babesik gabe gelditzeko arriskuan edo babesik gabe dauden haurrak, nerabeak eta gazteak	Hezkuntza ez formala: Erakundeen esparrua
SUSMOA Federazioa (Gaz-teleku, Aldaika, Bidegintza)	Babesik gabe gelditzeko arriskuan edo babesik gabe dauden haurrak, nerabeak eta gazteak	Hezkuntza ez formala: Elkarleen esparrua

Nola egingo dugu lan?

Honakoak lortu nahi dira Modularen Diziplinarteko Jarduerarekin (MDJ):

- **Moduluko gaitasun espezifikoak eta orokorrak lortzen laguntzea.**
- **Diziplina arteko lanera hurbiltzea.** Kasu honetan, diziplina anitzeko behaketa modua bultzatu nahi dugu, *aztertutako testuinguruak zein neurritan eragiten duen hezkuntzaren arrakastan* aztertzeko. Azterketa hori egin ahal izateko, irakasgai bakoitzeko informazioa erabili beharko da nahitaez.
- **Ikasleen ikaskuntza autonomia eta kooperatiboa sustatu.** Horretarako, ikasketa kooperatiboaren metodologia erabiliko da talde txikietan. Estrategia honetan oinarritua, ikasleek hezkuntzako helburuak lortzeko jarduerak gauzatu beharko dituzte dela esparru kognositiboan, dela sozialean eta afektiboan (elkartasuna, pertsonen arteko harremanak, sentimenduen identifikazioa, etab.). Ikasle bakoitzaren arrakasta, gainerako ikaskideek ezarritako helburuak bete izanaren arabera izango da. Modu horretan, estimulua ez da norberarena bakarrik, taldearena baizik, eta taldearen helburuak lortzeko harreman gaitasunak garatu eta landu beharko dituzte. Garrantzi handikoa da hori, lan munduari begira.

MDJ amaitzean, honetarako gai izan behar dute ikasleek:

- Informazioa aukeratu eta bateratu, eta moduluko eremu bakoitzeko datuak aztertu eta argudioak proposatu, testuinguru jakin batek hezkuntzaren arrakastan egin dezakeen ekarpena baloratu.
- Txosten idatzi egituratua eta argudiatua idatzi, zehaztuta dauden irizpide akademiko eta formalak erabiliz.
- Ikaskideen aurrean MDJ txostenaren inguruko pentsamendu eta ideiak ahoz komunikatu.
- Jarduera eta atazen planifikazioan zehaztutako prozesuak errespetatu, eta taldeko eztabaidan eta talde lanean aktiboki parte hartu.
- Lanak egin eta aurkezterakoan IKT tresnak erabili.

Zeintzuk izango dira ikasketa prozesu honetan emango ditugun urratsak?

I. Prestaketa fasea

1. MDJ aurkezpena: MDJren diseinua eta tresna informatikoak
2. “Elkarrekin ikasiz” tailerra
3. “Zer da Ikasketa Kooperatiboa? Zergatik Ikasketa Kooperatiboa?” tailerra
4. Nola idatzi txosten bat eta nola aurkeztu ahoz. Txosten akademikoak eta ahozko aurkezpenak egiten ikasteko tailerra.

II. Ataza burutzeko fasea

1. Hezkuntzaren arrakasta

- 1.1 Hezkuntzaren arrakasta kontzeptuari hurbiltzea, hezkuntzan arrakasta izateko beharrezkoak diren baldintzak eta pertsonengan eta gizartean duten eragina. Talde/ikasgela osoarentzat komuna.
- 1.2 Hezkuntzaren arrakasta kontzeptuan sakontzea.

2. Testuingurua hautatzea, tutorea izendatzea eta planifikazioa:

- 2.1 Atazen egutegia osatzea, materialak ematea eta lehen orientabideak (tutoreak taldeari)
- 2.2 Aukeratutako gizarte eta hezkuntzaren testuingurua aztertzea. Azpiko adierazleak hartuko dira kontuan:
 - 2.2.1 Proiektua/elkartea/erakundea: testuinguru mota, xedeak, burutzen diren esku hartze motak.
 - 2.2.2 Hartzaileak: ezaugarri psikosozilogikoak.
 - 2.2.3 Profesionalak: lan hori egiten duten profesional motak, lan egiteko moduak, beste profesionalekin dituzten harremanak, lan egiturak.
 - 2.2.4 Baliabideak: baliabide berezien, materialen, ekonomikoen eta pertsonalen ezaugarriak. Hedapen materialak.
- 2.3 Proposatutako testuinguru zehatza lantzeko moduaren analisia, galdera nagusia kontuan izanik: Zein neurritan eragiten du hezkuntzaren arrakastan? Proposatzen diren adierazle kopuru mugatu batean oinarrituta egingo da analisi hori. Lanean bi une izango ditugula aurreikusten da: uneetako bat dokumentazioa bilatzeko (dokumentazioaren zati bat tutoreak emandakoa izango da) eta bestea dokumentuak aztertzeko.

III. Txostena egitea

Talde bakoitzak prozesuko urratsak bilduko dituen txostena idatziko du. Txostena egiteko, honakoak izan beharko dituzte kontuan ikasleek:

- a) Hausnarketaren, analisiaren eta ikerketaren emaitza aurkezteko balio du txostenak, eta horietako bakoitzetik apur bat bildu beharko du.
- b) Gai bati buruzko hausnarketa sakona egin, egituratu eta aurkeztu behar da.
- c) Txostena egiteko hainbat urrats eman beharko dira:

- Planifikatzea: iturriak bilatu, materiala irakurri eta bildu, informazioa antolatu eta aurkibidea osatu.

Eta honetako galderak:

Zein da txostenaren helburua? Erantzuna MDJ atazaren helburuarekin lotuta dago.

Gaiari buruzko zein alderdi jakin nahi du hartzaileak? Erantzuna MDJ atazaren urratsekin lotuta dago.

Hartzaileak irakurri ondoren zerekin gelditzea nahi dugu? Informazioaren antolaketa eta edukiaren aukeraketari buruzko hausnarketa egitea eskatzen du erantzunak.

- Testua idaztea eta zuzenketa prozesua: Erabilgarria izan daiteke ikasleek txostenak idazteko oinarritzko egitura kontuan izatea:
 - Sarrera
Irakurketa errazten duen gida, lanak zer bilduko duen adierazten da (argitalpenetako Abstract edo Laburpenaren baliokidea da: txosteneko edukien laburpen kondentsatua). Gaiaren aurkezpena eta helburua ere jasota datoz bertan.
 - Txostenaren gorputza
Zatirik garrantzizkoena da, txosten guztietan egon behar duena. Lanaren helburua betetzen lagunduko duten gaiari buruzkoak zehaztu, aztertu, interpretatu eta baloratu dira. Gorputzaren amaierari itxiera on bat eman behar zaio, gogorarazi nahi ditugun ideiekin.
 - Itxiera: Ondorioak, Hausnarketak, Proposamenak, Gomendioak, Ekintza plana...

Idazketa prozesuan hainbat zirriborro egingo dira, eta zuzenketa arretaz egingo da urrats bakoitzean, gaika:

- Lehen zirriborroa: Informazioa ongi aukeratu eta antolatzea da garrantzizkoena (gaiak/azpigiak; ideia multzoak/paragrafoak).
- Bigarren zirriborroa: Fase honetan, ideien antolaketa berrikusten da, idatzitakoaren argitasuna, paragrafoen egitura... eta baita testuaren zuzentasuna eta estiloa ere.
- Hurrengo zirriborroetan testuaren alderdi formalagoak aztertzen dira: testuaren kokapena (tarteak, zenbakikuntza, goiburuak, titulu eta azpitituluak...) aurkibidea (kapitulu eta atalak), amaierako bibliografia, aipamen testualak, orri oineko oharak, etab.

Tutoreak ikasleei bitarteko lanak (zirriborroak, eskemak, prozesuari buruzko txostenak) eskatzea lagungarria izan daiteke txostenaren idazketa arrakastaz gauzatu ahal izateko.

Modulu honetako irakasleentzat txostenaren idazketa ez da aurreko urrats guztien ondorengo azken pausoa, ikasketarako tresna baizik. Egindako lanaren azken produktua jasotzea baino, prozesuaren beraren beste atal bat da, egiten ari garen ibilbideari buruzko hausnarketa eragin

behar duena (Miras & Solé, 2007). Zentzu horretan, lehenengo zirriborroen idazketa eta berrikusketa prozesuak atazen urratsekin batera egingo diren lanak dira.

Azkenik, kontuan izan beharko dugu testu akademikoak idaztea ez dela “ezagutza jakinarazte” hutsa (edozein iturritatik, ahozko nahiz idatzizko, jasotako ezagutza literalki errepikatzea), “ezagutza eraldatzeko” tresna baizik; ikerketa eragin duten auziei buruzko erantzun propioak eman behar dira, hau da, ezagutza modu pertsonalean antolatu helburuen arabera, eta modu egokian komunikatzen jakitea, testuinguruarekin bat etorrira). Tutoreek lan horien garrantzia eta Unibertsitatean hasi berriak diren ikasleentzat idazketarako bigarren modu horrek duen zailtasuna kontuan izango dute. Horrela, tutoreen zeregina izango da idazketaren funtzio horiei buruzko informazioa ematea eta idazketa, ezagutzaren berridazketa egiteko tresna modura erabiltzeko lehen urratsak ematen laguntzea.

IV. “Hezkuntzaren arrakastarantz. Testuinguru ezberdinei so eginez” jardunaldietan parte hartzea

Jardunaldi horietan parte hartzearen helburua da, moduluko zenbait gaitasunen ebaluazioa egiteko balio izateaz gain, talde txiki guztien artean lankidetzaren dinamika bat sortzea, norberak ikasitakoa ikaskideen aurrean partekatu ahal izateko. Modu horretan, ikasle bakoitzak ezagutza sor dezake, ez soilik bere taldetxoan aztertutako testuingururako, baita gainerako taldeek aztertu dituzten hezkuntza testuinguruetarako ere. Parte-hartzea bi modutan egingo da: taldearen txostena ahoz aurkeztuz eta gainerako taldeen aurkezpenetan aktiboki inplikatur.

Lanen ahozko aurkezpena prestatzeko azpikoak hartuko dira kontuan:

- a. Txostena ahoz aurkeztearekin, aztertutako hezkuntza testuinguruaren deskribapena egingo da eta Jardunaldietan parte hartzen duten etorkizuneko gizarte hezitzaileei testuinguru horri buruzko ezagutza eskainiko zaie. Lanaren oinarri den galderari erantzuteko argudio nahikoak eta garrantzizkoak ere eskainiko ditu: Aztertutako testuinguruak zein neurritan eragiten du hezkuntzaren arrakastan?
- b. Banaka eta taldeka hausnarketa sakona egin behar da honako galderoi ahalik eta modurik laburrenean erantzun ahal izateko: zer da nahitaez kontatu behar dena lanaren giltzarriei buruzko ideia nagusia emateko? Zer uste dugu azpimarratu behar dela? Zeintzuk dira ondorio nagusienak? Zein da lan honekin ikasi dugun alderdirik nagusia? Zer zalantza eragin digu?
- c. Azkenik, une oro kontuan izan behar dugu ahozko testua entzuna izateko prestatu behar dela, eta beraz, bistakoa bada ere, nori zuzenduko gaitzaizkion eta zein egoeratan (jardunaldiak eta horien funtzioak) komunikatuko dugun kontuan izan behar dugu.
- d. Aurkezpena prestatzeko prozesuan urrats hauek emango ditugu:
 - Taldekideen arteko eztabaida, b) atalean adierazitako galderei erantzunak emateko eta aurkezpenean sartuko den informazioa behin betiko erabakitzeke.
 - Azalpenaren ildoari buruzko eztabaida eta erabakiak hartzea.
 - Aurkezpenean zehar taldekide bakoitzak izango dituen ardurak zehazteko gidoia prestatu.
 - Zirriborroak egin, onarpen maila nahikoa lortu arte.
 - Aurkezpena prestatu eta saioak egin, azken ukituak emateko; aurkezpen denbora, lanaren gakoak, azpimarratu nahi dena, ondorio nagusienak, lanarekin zer ikasi den, sortu diren zalantzak, etab.

Gidoia egiteko faseetan tutorearen esku hartzea lagungarria izango da kasu honetan ere, aurkezpen arrakastatsua lortzeaz gain ikasleek Jardunaldi hauetako aurkezpen estiloa beregana dezaten. Izan ere, gizarte hezitzaileen lanbiderako esperientzia hartuko baitute.

Jardunaldietan entzule moduan parte hartzean bete beharrekoak:

- Aurkezpen guztietan parte hartzea, oharrak hartu eta beste taldeek aztertutako hezkuntza testuinguruak ulertuz.
- Aurkezpenak eragindako zalantza guztiak argitzeko beharrezkoak diren galderak egitea.
- Aurkezpenek eragindako hausnarketak guztiekin partekatzea.
- Lantaldeei ahozko gaitasunak hobetzen lagundu, euren aurkezpenari buruzko feedback eginez: indarguneei balioa eman eta hobekuntzarako iradokizunak eskaini, aukerarik balego.

Modulu honetako irakasleok argi dugu Mercer-ek adierazitakoa: *“lengoaia ez da soilik norbanakoek ideiak formulatu eta komunikatzeko baliabidea, entzuleak pentsatzen jarri eta elkarrekin ikasi dezaten tresna ere bada”* (Mercer, 1997, p. 14); eta horixe da, hain zuzen ere, jardueraren zentzu nagusia.

V. Lankidetzaren prozesuaren eta talde funtzionamenduaren analisia

Ikasketa kooperatiboan, ikaskideekin lankidetzan planteatzen diren eduki akademikoak ikastea bezain garrantzitsua da lankidetzaren horren prozesua bera ikastea. Horretarako, taldeak burutuko dituen jardueren artean talde lanaren funtzionamenduari buruzko hausnarketa eragingo dutenak ere izango dira, ataza akademikoak egitera bideratutakoekin batera, talde lanean eta lanbidean jarduteko beharrezkoak diren lankidetzaren gaitasunak garatu ditzaten. Baina ez da lanen amaieran egingo den hausnarketa, hasieratik egiten joango dena baizik. Hala, talde laneko saioetan nahiz tutoretzetan hausnarketarako, hitz egiteko eta erabakiak hartzeko denbora eskainiko da. Proposatzen dugun analisia gauzatuko duen hausnarketa azpian adierazita datozen jarduerak eta urratsen arabera egingo da:

- “Elkarrekin ikasiz” tailerrean parte hartzea.
- “Zer da Ikasketa Kooperatiboa? Zertarako Ikasketa Kooperatiboa?” tailerrean parte hartzea.
- Talde laneko prozesuaren autobehaketa, hau da, gutxienez lan saio bakoitzaren amaieran helburuak non lortzen ari diren eta kideen artean lan harreman efektiboa mantentzen ari diren eztabaidatu beharko da. Horretarako bi galdera hauei erantzun behar zaie: (1) taldeari baliagarri izan zaion zer egin du taldekide bakoitzak? eta (2) zer egin dezake taldekide bakoitzak bihar taldearen funtzionamendua hobea izan dadin?
- Jarraitutako prozesuari buruzko analisia idatziz jaso. Honako galderari erantzun beharko zaio: *“Zer ikasi du taldeak laneko harreman positiboak ezartzearen inguruan?”* eta jarraitutako prozesuko etapak deskribatu beharko dira: funtzionamendu arauak eta hartutako rolak.

MDJren Ebaluazioa (prozesua, adierazleak, irizpideak eta nota)

Gaitasunen bidezko irakaskuntza-ikasketa planteamenduan, beharrezkoa da gogoraraztea gaitasunen balorazioa eta lan baten menperatze mailaren adierazleen balorazioa ezin direla modu independentean egin. Izan ere, gaitasun kontzeptua modu integratuan ulertzen dugu: gaitasuna zeregin konplexu bat konpontzeko prozesua da. Beraz, ez ditugu gaitasunak ebaluatu behar, ikasketa prozesuaren kalitatea eta ikasleek (taldeek) egoera edo arazo bat konpontzeko egindako produktuaren kalitatea baizik. Horretarako, informazio hori biltzea ahalbidetzen duten adierazleak erabiliko ditugu, ondoren horiek egiaztatzeko eta baloratzeko.

Azken finean, ebaluazioak **prestakuntzaren zati** izan behar duela uste dugu. Prozesuan zehar, bai ikasleek bai irakasleek (lankidetzan jardunez) adierazleak eta ebidentziak erabiliko dituzte lana nola gauzatu ikusteko. Era berean, ikasketen ahulguneak zehazteko eta horiek gainditzeko egin beharreko hausnarketa ezartzeko informazioa eskuratuko dugu. Modu horretan, ikasketak, ditugun zailtasunak eta horiei aurre egiteko moduak aztertuta, ikasketa prozesua indartuko dugu eta prestakuntza prozesu honetan funtsezkoak diren hainbat alderdi hautemango ditugu (horietako batzuk aurreikusi gabekoak).

Zentzu horretan, MDJra bideratutako saioen egituraren berrazterketarako, analisirako eta hausnarketarako uneak sartzen dira, prestakuntza prozesuaren jarraipena egin eta, behar izatekotan, birbideratzeko. Bestalde, ikasleen kalifikazioari dagokionez, hainbat irizpide eta adierazle zehaztu beharko dira, 1. Moduluan zehar ikasleek eskuratutako gaitasunen ebidentziak agerian uzteko.

Hauek dira erabiliko diren ebaluazio tresnak:

- Txosten idatzia (% 50)
- Ahozko aurkezpena (% 30)
- Prozesuko parte-hartzea eta analisia (% 20)

Hauek dira ebaluaziorako erabiliko ditugun adierazleak:

TXOSTEN IDATZIA	• Tutoreak emandako gidoia edo jarraibideak jarraitu ditu. • Diziplina ezberdinetako oinarritzko informazioa erabili da. • Idatzitako baieztapenak justifikatu dira. • Txostenaren atalen arteko loturak egin ditu. • Hizkera formal idatzia egoki erabili da (estiloa, ortografia, gramatika, puntuazioa...). • Bibliografia eta aipua sistema estandarizatuen bidez (APA) aurkeztu ditu
AHOZKO AURKEZPENA	• Gaia ulertzeko oinarritzko informazioa eskaintzen du. • Ahozko aurkezpenetarako emandako denborak errespetatu ditu. • Ideiak egituratuta eta modu ordenatuan aurkeztu ditu. • Aurkezpenean erabilitako hizkera ez da sexista. • Ahoskera ulergarri eta argia erabili du. • Aurkezpena laguntzeko baliabide didaktikoak erabili ditu. • Ikaskideek nahiz irakasleek egindako galderak erantzuten ditu.
LANKIDETZA PROZESUAN PARTE HARTU ETA ANALISIA EGIN	• Taldeak topo egiten duenean aktiboki parte hartzen du, informazioa, ezagutza eta esperientziak partekatuz. • Taldeko saioetara behar den unean joaten da. • Lana eginda eramaten du. • “Hezkuntzaren arrakastarantz: testuinguru ezberdinei so eginez” jardunaldietan talde guztiekin egindako bileretan parte-hartze aktiboa du. • Funtzionamendu arauai, hartutako rolei, lan estrategiei eta behaketarako hautatu diren gaitasunen inguruko gatazken ebazpenei dagokienez taldeak egindako prozesua deskribatu du. • Taldearen funtzionamenduari buruzko oharra egin ditu. • Taldeko esperientzian eta kontsultatutako iturrietan oinarrituta lankidetzaren prozesuari buruzko hausnarketak eta ondorioak eman ditu. • Taldeak jarraitutako dinamika hobetzeko aukerak aurkeztu ditu, taldeko esperientzian eta kontsultatutako iturrietan oinarrituta. • Ideien arteko kohesioa eta koherentzia agertzen du.

Kalifikazio sistema

Taldeko irakasle tutorearen ardura izango da MDJri nota jartzea; dena den, moduluko gainerako irakasleekin kontsultatu ahal izango du. Nahitaezkoa da MDJ egitea irakasgaien nota jasotzeko. Gidan zehaztutako urratsak errespetatzen dituzten MDJk bakarrik hartuko dira ontzat.

MDJk gehienez 1,5eko nota jasoko du. Nota hori irakasgaietan lortutakoei gehituko zaie.

Nota hori irakasgaiei gehitu ahal izateko, irakasgaiek gaindituta egon beharko dute. MDJ gainditu ezean, irakasgaietan lortu ahal izango den gehienezko puntuazioa 8,5ekoa izango da.

Kalifikazioarekin batera, goian zehaztutako adierazleen eta moduluko gaitasunen arabera balorazioa erantsiko da. Balorazio hori erreferentzia izango da bere lanaren ahulgune eta ahalmenak gainerako ikaskideekin partekatzerakoan, eta prestakuntza prozesua hobetzen joan ahal izateko balioko dio ikasleari.

PLAGIOA: Ezin da beste norbaitek egindako lana, edo horren kopia edo imitazioa, norberarena izango balitz moduan aurkeztu. Ikasleak aipuak egiteko arauak ezagutu eta erabili beharko ditu. Plagioaren susmoak txostena ez onartzea eta, beraz, MDJ ez gainditzea suposa dezake.

Moduluko Diziplinarteko jarduera (MDJ) egiteaz salbuestea

1. Mugikortasun programetan parte hartzen ari diren ikasleek ez dute Moduluko Diziplinarteko Jarduera (MDJ) egin beharrik izango, modulu oso batean matrikulatuta dauden kasuetan izan ezik.
2. Graduako ikasleek MDJ egin beharko dute, baldin eta, gutxienez, modulu bateko hiru irakasgaietan matrikulatuta badaude. Gainerako kasuetan, ikasleek ez dute egin beharrik izango.
3. Aldi berean bi modulu egin behar dituzten ikasleek (irakasgai batzuk baliozkotuta edo gainditu gabe dauzkatelako) irakasgai gehien egiteke dituzten MDJ egin beharko dute soilik. Bi moduluetan egin beharreko irakasgai kopurua bera bada, goreneko mailako moduluan egingo dute MDJ.
4. MDJ egin behar ez dutenen kasuan, irakasgaiaren nota 10etik emango da, MDJren % 15 aplikatu gabe.

MDJren ebaluazio jarraituari uko egitea

MDJren ebaluazio jarraituari uko egin beharko dion ikasleak lauhilabetea hasi eta 9 asteko gehieneko epean moduluko koordinatzaileari idatziz jakinarazi beharko dio.

Ikasle honek MDJ ebaluatzeako moduloko irakasle taldean adostutako banakako froga bat egin beharko du. Moduloko koordinatzaileak edo honek izendatutako irakasle batek froga honen ezaugarriak jakinaraziko dizkio

Erreferentzia bibliografikoak

Miras, M. & Solé, I. (2007). La elaboración del conocimiento científico y académico. In Bastelló, M. (Ed.), *Escribir y comunicarse en contextos científicos y académicos* (pp. 83-112). Barcelona: Graó

Mercer, N. (1997). *La construcción guiada del conocimiento*. Barcelona: Paidós

IRAKASGAIEN ZERRENTA: Bakoitzaren konpetentzia espezifikoak eta edukiak

Irakasgai bakoitzaren metodologia eta ebaluazioa zehatzak GAUREn argitaratutako irakasgaien gidetan kontsulta daitezke.

1. GARAPENAREN PSIKOLOGIA

Konpetentzia espezifikoak

1.	Esku-hartze sozio-hezitzaileen oinarri psikologikoak ezagutzea eta ulertzea, testuinguru ezberdin eta garapenaren ikuspegi teoriko ezberdin kontuan hartuz.
2.	Giza garapenaren oinarrizko osagaiak eta bizi zikloaren etapa guztiak osatzen duten elementuak identifikatzea eta deskribatzea testuinguru eta momentu ezberdinetan, horiek modu hezitzailean interpretatzeko eta zailtasunak identifikatzeko.
3.	Garapenaren psikologian erabiltzen diren ikerketa diseinuak ezagutzea eta haien prozedura metodologiko batzuk aplikatzen jakitea garapen eta hezkuntzako egoera zehatzen hasierako ebaluazioa edo diagnostikoa egiteko.
4.	Pertsonen garapena ahalbidetzen duten esku-hartze sozio-hezitzaileak planifikatzeko irizpideak banaka eta taldeka sortzea, erritmo heterogeneo eta maila ezberdinak kontuan hartuz.

Gai zerrenda

1. Garapenaren ikasketari buruzko hastapena	Kontzeptualizazioa. Garapenaren teoriak: biologikoak, psikoanalitikoak, ikasketarenak, kognitiboak, kulturalak, testuingurukoak eta humanistikoak. Garapen psikologikoaren aldiak.
2. Garapen goiztiarra (0-2 urte)	Jaio aurretiko garapenaren eta zainketaren ikasketa. Herentzia, jaio aurretiko ingurua eta eraginak. Haur jaio berria: gaitasunak, erreflexuak eta egoerak. Lehen haurtzarora: atxikimendua sortzea eta lehen emozioak. Lengoiaren hastapenak. Adimenaren sorrera.
3. Haurren garapena (2-12 urte)	Haurtzarora. Hazkunde fisikoa eta psikomotorea. Pentsamendu logikoaren garapena. Lengoiaren garapena. Atxikimendua, emozioak eta afektuak. Autokontzeptua eta autoestimua. Harreman sozialak. Garapen morala.
4. Nerabeen garapena	Nerabeen garapenari buruzko teoriak. Pentsamendu formala. Atxikimendua, emozioak eta sentimenduak. Autokontzeptua, autoestimua eta nerabearen nortasuna. Balore eta moralean aldaketak. Nerabea eta familia. Lagunak.
5. Helduen garapena eta zahartzarora	Gaztarora, helduaroa eta zahartzarora. Helduaroaren esanahia. Helduen garapenaren testuinguruak: familia, lana eta komunitatea. Bikotekidea eta familia. Pentsamendu dialektikoa, sormena eta jakinduria. Zahartzarora: izate biologikoa, psikologikoa eta soziala.

2. HEZKUNTZA, HIZKUNTZA, KULTURA ETA ANIZTASUNA

Konpetentzia espezifikoak

Gutziz funtsezkoa da etorkizuneko gizarte hezitzaileentzat hizkuntza eta kulturaren artean dagoen barne harremana ezagutu eta modu kritikoan aztertzeak ahalmena izatea. Harreman honetan sakontzeak kultur eta hizkuntz aniztasunera eramaten gaitu gure gizarteko etengabeko errealitate historiko modura. Harreman hauek ikustea eta aztertzea gaur egun are beharrezkoagoa da globalizazioaren eta gure gizartearen izaera hibridoaren eraginez, kultura ezberdinen nahasketagatik. Beraz, garrantzitsua da gizarte hezitzailea jakitun izatea aniztasun kulturalak nola eragiten duen komunikazio ereduetan eta komunikazio horiek ematen diren testuinguruetan eta kulturartekotasun gaitasuna sortzea beharrezkoa dela "besteekin" elkarrekintzan aritzeko, beste ikuspuntu eta mundu ikuskera batzuk onartzea, ikuspuntu ezberdinen artean bitartekaritza egin eta aniztasunari buruzko norberaren balorazioez jakitun izan.

Gai zerrenda

1. Hizkuntza eta komunikazioa	Esku hartze soziala eta hizkuntzaniztasuna: komunikazioa, elkarbizitza eta integrazioa. Hizkuntzen trataera irakaskuntza eleanitzaren testuinguruan. Elebidun eta eleaniztun hezkuntza programen azterketa. Kulturataniztasuna eta identitatea. Kodeak eta komunikazioa aniztasuna. Kulturarteko komunikazioa eta kulturarteko gaitasun komunikatiboa. Kulturarteko hezkuntza: oinarri kontzeptualak eta inplikazioak.
2. Hizkuntza, kultura eta gizartea	Hizkuntza giza gertakari modura. Hizkuntzak giza kohesioaren osagai modura: alderdi sozio-kulturala, sozio-linguistikoa y sozio-hezitzailea. Hizkuntza, kultura eta identitatearen arteko lotura. Hizkuntza identitatea eta partaidetasunaren adierazgarri. Identitatearen eraikuntza gizarte kulturantzetan.
3. Hizkuntzaren soziologia Hizkuntza komunikazio tresna	Hizkuntz aniztasunaren eragile erabakiorrak. Hizkuntz aniztasuna: aldagarriak eta erregistroak. Berdinak hizkuntzaren aurrean eta ezberdinak erabileran. Hizkuntz politikak eta hezitzaileen egitekoa hizkuntz politika horien eragile modura. Elkarrekintza ereduak: norgehiagoka, elkarlana.
4. Hezkuntza testuinguru kulturanitz eta hizkuntzanizkoetan	Esku hartze soziala eta hizkuntzaniztasuna: komunikazioa, elkarbizitza eta integrazioa. Hizkuntzen trataera irakaskuntza eleanitzaren testuinguruan. Elebidun eta eleaniztun hezkuntza programen azterketa. Kulturataniztasuna eta identitatea. Kodeak eta komunikazioa aniztasuna. Kulturarteko komunikazioa eta kulturarteko gaitasun komunikatiboa. Kulturarteko hezkuntza: oinarri kontzeptualak eta inplikazioak.
5. Diskurtsoen azterketa kritikoak	Diskurtsoak testuinguruen giza praktika erabakior modura. Erabilera linguistikoen inplikazio sozialak. Diskurtsoen egitekoa ideologien, balio eta jakintzen transmisio eta legezkotzean. Diskurtsoak giza eraketan. Erabilera linguistikoaren kontzientzia kritikoaren garapena.

3. ESTATISTIKA HEZKUNTZAN

Konpetentzia espezifikoak

1. Zorroztasun zientifikoz hezkuntza testuinguruak aztertzen jakin
2. Informazioa bildu, analizatu eta interpretatu, bi aldagai gehienez, analisi teknikak erabiliz.
3. Era kooperatiboan lan egin
4. Modu autonomoan ikasi

Gai zerrenda

1. Estatistikaren oinarrizko kontzeptuak	Estatistikaren zeregina ikerketa prozesuetan. Estatistikaren oinarrizko sailkapena: deskriptiboa eta inferentziala. Neurketaren arazoa. Aldagaiak. Kontzeptua eta aldagai motak.
2. Aldagai bat antolatzea eta grafikoki irudikatzea	Datuak antolatzea. Maiztasunen banaketak. Irudikapen grafikoak.
3. Maiztasunen banaketen propietateak	Joera zentraleko neurriak. Sakabanatze neurriak. Forma neurriak: asimetria eta kurtosia.
4. Banakako puntuazioak eta kurba normala	Puntuazio zuzenak, diferentzialak eta tipikoak. Puntuazio tipikoen deribatuak. Lege normala.
5. Bi aldagaiko multzoen azterketa	Irudikapen grafikoak: dispersio diagrama. Korrelazio koefizientea.
6. Erregresio lineala	Erregresio kontzeptua eta oinarriak. Erregresio lineal sinplea. Erregresio anizkoitzaren hastapenak.
7. Banaketa jarraituen eredu teorikoak	Banaketa normalak, t , χ^2 eta F
8. Inferentzia estatistikoaren hastapenak	Lagina eta populazioa. Lagin adierazgarria eta ausazko laginketa. Inferentzia estatistikoaren oinarriak: laginketa eta parametroen estimazioa.
9. Hipotesien kontrastea	H_0 eta H_1 ; hipotesien kontrastea egiteko urratsak; batezbestekoa, bariantza eta proportzioaren kontrastea.
10. Bi laginen kontrastea parametrikoa	Bi lagin independenteen kontrastea parametrikoa: batezbestekoa, bariantza eta proportzioa
11. Bariantza-analisiaren hastapenak	Bi talde baino gehiagoren batezbestekoaren konparaketa

Oharra: Datuen tratamendua eta analisia R edo SPSS programen bitartez egingo da.

4. HEZKUNTZAREN HISTORIA

Konpetentzia espezifikak

1. Hezkuntzaren alderdi historikoak ezagutu eta oinarritu hezkuntzaren historiaren ardatz nagusiak zehazteko gai izan ahal izateko honako eremuak aintzakotzat hartuz: haurtzarora, alfabetatzea, hezkuntza-politikak zein erakundeak eta pentsamendu pedagogikoa.
2. Hezkuntza-gertakariak beren testuinguru sozial, politiko, ekonomiko eta kulturaletan aztertzeo oinarritzko ezagupen historikoak eskuratu.
3. Hezkuntza eremuko ikerketa historikoan oinarritutakoak diren tresna metodologikoak eta teknikoak erabiliz ikerketa-lanetan aritzeko lehen urratsak eman.
4. Egungo hezkuntza-egoera ezagutzeko Hezkuntzaren Historia tresna kritiko gisa erabili berari buruz hausnarketan oinarritutako ikuspegia erraztuz.
5. Hezkuntza-gertakarien testuinguru historikoan arrazoi, ondorio, egonkortasun, haustura, antzekotasun eta ezberdintasunez jabetu.
6. Hezkuntza eremuko gertakari historikoen inguruan jarrera egokia garatu, hezkuntzarekiko hausnarketan oinarritutako ikuspegi kritikoa azalduz.

Gai zerrenda

1. Hezkuntzaren Historia: sarrera	1. Hezkuntzaren Historia: definizioak, historiaren sorrera, korrante historiografikoak. 2. Hezkuntzaren Historia diziplina akademiko gisa. 3. Ikerkuntza arloa Hezkuntzaren Historian: metodoak, teknikak, prozesua.
2. Hezkuntza eta kultura Antzin Aroan	1. Hezkuntza Ekialde Hurbileko Kulturetan: Mesopotamia eta Egipto. 2. Hezkuntza Mundu Klasikoan: Grezia eta Erroma. 3. Hezkuntza-erakundeak eta herritarren formazioa. 4. <i>Paideia</i> grekoa eta <i>humanitas</i> erromatarra.
3. Kristautasuna eta Hezkuntza Erdi Aroan	1. Kristautasuna eta hezkuntza 2. Erdi Aroko hezkuntza, monasterio eskolak eta hezkuntza erakundeak. Unibertsitatea.
4. Hezkuntza Aro Modernoan	1. Errenazimendua. Humanismoaren diskurtso pedagogikoa. 2. Erreforma eta Kontraerreforma. Erlijio ordenak eta hezkuntza, pedagogia jesuitikoa, herri-eskolak. 3. Ilustrazioa eta pentsamendu pedagogikoa.
5. Haurtzarora Aro Garaikidean	1. Familia, haurtzarora eta sozializazio-prozesuak. 2. Familia ereduen bilakaera. Lana eta hilkortasuna haurtzaroan. 3. Haurtzarora eta babes-politika. Haurtzaro arriskutsua eta arriskupeko haurtzarora. 4. Haurtzaroaren Eskubideak.
6. Alfabetatze prozesuak Aro Garaikidean	1. Alfabetatze-eredu, prozesu eta erabilerak Mendebaldean 2. Alfabetatze prozesuaren bilakaera Estatu Espainiarrean. Alfabetatzetik helduen hezkuntzara. 3. Alfabetatzearen egoera munduan.
7. Hezkuntza-sistemak: bilakaera eta erakundeak	1. Europako hezkuntza-sistemen sorrera eta bilakaera 2. Politika eta Hezkuntza espainiar estatuan: konstituzionalismoa eta

	hezkuntza 3. Hezkuntza II. Errepublikan. Hezkuntza frankismoan: nazional-katolizismotik hezkuntza teknokraziara. 4. hezkuntza erakundeak: ezaugarriak eta bilakaera. Hezkuntza-antolakuntza eta administrazioa. Ikuskaritza. Irakasleriaren erakuntza. Curriculumaren bilakaera.
--	---

5. HEZKUNTZAREN SOZIOLOGIA

Konpetentzia espezifikoak

1. Hezkuntzaren eta gizartearen azterketan, ikuspegi soziologikoaren oinarri teoriko bereziak zeintzuk diren identifikatzea eta ulertzea.
2. Gizarte hezitzaile bati diziplina honek egin dakizkiokeen ekarpen kontzeptualak identifikatuz eta kontuan hartuz, Gizarte Hezitzailearen praktika profesionalaren inguruko hausnarketa teorikoa egitea.
3. Errealitatearen azterketa soziologikoa egiten jakitea, idatziz adieraziz.
4. Jarrera parte-hartzailea erakustea, ikasketak sor ditzakeen zailtasunak gainditu nahian.
5. Lan taldeetan era kooperatibo, arduratsu eta etiko batean lan egitea, sortuko diren zailtasunak ikusiz eta konponbideak planteatuz.

Gai zerrenda

1. Soziologia diziplina zientifiko gisa	Soziologia beste diziplina batzuen artean. Soziologiaren berezitasuna gizarteaz aztertzerako moduan: giza ingurune kontzeptua. Soziologiaren ekarpenak Gizarte Hezkuntzari.
2. Hezkuntza vs gizarteratze prozesua	Nortasuna. Nortasunaren garapenean eragina duten faktoreak. Gizarteratze prozesua. Gizarte Hezitzailea, gizarteratze eragile gisa.
3. Hezkuntza testuinguru sozio politikoan	Paper sozialak eta status sozialak. Estratifikazio soziala eta mugikortasun soziala. Gizarte egituraren inguruko eta hezkuntzaren inguruko ikuspegi teorikoak. Gizarte Hezitzailea gizarte aldaketarako eragile gisa.